

VACCALLUZZO REN BILDUMA LEHIAKETATIK KANPO GERATU DA, OINARRIETAN EZARRITAKO GUTXIENEO IRAUPENERA IRITSI EZ DELAKO

Atzo Kontxako badia argiz, kolorez eta dotoreziaz bete zuen **Belpassoko (Sizilia) Vaccalluzzo S.R.L. pirotekniaren** bilduma ezin izango dute baloratu Donostiako 61. Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketako epaimahaiek, lehiaketa arautzen duten oinarrietako bat bete ez duelako.

Bildumak **12 minutu eta 53,66 segundoko** iraupena izan zuen; lehiaketaren oinarriek, berriz, parte hartzen duten bildumentzat **gutxienez 15 minutuko** iraupena ezartzen dute. Baldintza hori ez betetzeak, beraz, bilduma lehiaketatik kanpo uztea dakar.

Erabaki horren ondorioz, Italiako piroteknia sari guztietatik kanpo geratzen da: bai **Epaimahai Ofizialak** eta **Epaimahai Gazteak** ematen dituzten sarietatik, baita **Herri Epaimahaiaren Saritik** ere.

Egoera horrek, hala ere, ez dio inolako baliorik kentzen Vaccalluzzo k atzo aurkeztutako bildumari. Italiako estilo peto-petoko ikuskizuna izan zen, bertaratutako publikoak gogo handiz hartu zuena, eta koloreen konbinazioagatik, espazioaren erabileragatik, soinuagatik, erritmoagatik eta konposizioaren dotoreziagatik nabarmendu zena. Maila handiko bilduma izan zen, baina jaurtiketa-denboran izandako akats baten ondorioz, azkenean lehiaketatik kanpo geratu da.

Erabakia atzo bertan jakinarazi zitzaion pirotekniari, eta hark kiroltasunez onartu zuen, nahiz eta etsipen handiz hartu. Arduradunek ez zuten ezkutatu Donostiara **“irabaztera”** etorriak zirela eta edizio honetarako prestatutako bilduman konfiantza osoa zutela.

Antolakuntzak bereziki eskertu nahi dizkio **Vaccalluzzo S.R.L.ri** erakutsitako profesionaltasuna, hartutako erabakiaren aurrean izandako jarrera eta bere ikuskizunen konposizioan erakusten duen artisau-lana. Era berean, biziki deitoratzen du erabaki hori hartu behar izana, baina ezinbestekoa da **parte hartzen duten piroteknia guztien arteko aukeraberdintasuna eta lehiaketaren zorrozatasuna bermatzeko.**

Erabakia lehiaketako epaimahaiei ere jakinarazi zaie, eta, beraz, Vaccalluzzo ren bilduma ez dute kontuan hartuko beren deliberazioetan.

Egoera horretatik harago, antolakuntzak berriro azpimarratu nahi du atzo gauean eskainitako ikuskizunaren kalitatea, eta Vaccalluzzo ri eskerrak eman nahi dizkio 61. edizio honetan parte hartzeagatik. **Donostiako Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren ateak zabalik geratzen dira Siziliako pirotekniak etorkizunean berriro parte har dezan**, Kontxan berriz ere haren lanaz eta atzo Donostiako publikoaren aurrean erakutsi zuen su artifizialen artea ulertzeko modu bereziaz goatzeko desioarekin.

Donostia, 2026ko abuztuaren 14a